



Goizuetako

2024ko ekaina - 23. zenbaki

Goizuetako
aldizkaria



Herri baten arrakasta



zenbaki honetan



• **Argitaratzailea:**
Goizuetako kultur taldea eta Goizuetako Udalaren Euskara Zerbitzua

• **Irudiak:**
Goizuetako eskola; Juan Jose Zubiri; Alaitz Eskudero; Ane Taberna; KORRIKA; Yoni Salaberria, Hodei Lujanbio; Esteban Arotzena.

• **Diseinua:**
Allende Arnaiz


• **Maketazioa:**
astidiseinua.com

LG NA 742-2016



aurkibidea

- **3** Aurkezpena
- **4-7** Arrakastaren gakoak
- **8-12** Harro-Herri, Korrika 2024
- **13** Atzera begira: 2002. urtea
- **14-18** Ignazio Bergara: euskaraz 1787-1811 bitartean idatzitako beste 368 gutun
- **19** Umore ona elkarteari jarritako bertsoak
- **20-22** Euskara eta kulturartekotasuna Xalto ikastetxean
- **23-27** Xalto eskolako ikasleek aurten landutako zenbait gai
- **28** Zure txanda





Herri baten arrakasta

Arrakastaren bidetik heldu da XAPO aldizkariaren 23. alea. Arrakasta modu askotara uler daiteke: izan liteke lasterketa batean markak hautsiz, edo besterik gabe, lasterketetan parte hartzeko gai dela konturatuz; izan liteke musikarako zaletasunak bultzatuta norberaren ametsak bete daitezkeela konturatuz; izan liteke Korrika norberaren herritik pasatzen denean sorrarazten duen bizi-joza sumatzean, herri oso batek ematen duen erantzuna sekulakoa denean, adin guztietako herritarren parte-hartzea ikustean ... mila modu daude arrakasta izateko eta ulertzeko.

Eta horiei erreparatu nahi die XAPOk ale honetan. Hasteko, bi goizuetarrek lortutako arrakastari buruzko elkarrizketa irakurriko duzue, Yoni Salaberriari eta Hodei Lujanbiori egindakoa. Ondoren Harro dagoen

Herri baten argazkiak ikusiko dituzue, Korrikak herria zeharkatzean sortu zuen emozio-uholdea berriaz gogoratzeko, ederra izan baitzen!

Irudi koloretsu horien ondoren txuri beltzeko atala izanen dugu, batetik *Atzera begira* jarriko garelako, eta ez bakarrik atal horretan diogen bezala 2002. urtera joanez, askoz atzerago ere egingen baitugu, 1787ra arte. Urte hartakoak baitira Ignazio Bergarak Juan Bautista Minondo nagusiari idatzitako 386 gutunak, ia denak euskaraz gainera. Horien inguruko erreportajea osatu dugu.

Goizuetan azkeneko urtetan bizitzera etorri diren familia anitzen inguruan ere ariko gara XAPOn. Izan ere, asko seme-alabekin etorri dira eta horiek Andres NARBARTE "XALTO" eskolan ari dira. Bakoitzak bere herrialdeko hizkuntza dakar, eta hemen euskara

ezagutu dute. Nola uztartu hizkuntza eta kultura aniztasun hori? horretarako "Euskara eta kulturartekotasuna" izeneko proiektu berria jarri dute martxan Xalto ikastetxeak, Guraso Elkar- teak eta Goizuetako Udalak, elkáarlanean.

Ohiko atalak ere osatu ditugu, batetik *Bertso txokoa*, *Zure Txanda* eta bestetik eskolako ikasleek idatzitako lanak.

Orri hauek aprobetxatu nahi ditugu XAPO idazten laguntzen diguten herritarrek eta kolaboratzaile guztiak eskertzeko, baita Xalto eskolako ikasleak ere, nola ez! Urtez urte ondoan izaten ditugu aldizkaria prestatzeko, haien laguntza ezinbestekoa da, beraz hemendik eskerrik asko denei! Eta ezin ahaztu zuek, irakurleak. Eskerrik asko zuei ere, XAPO irakurtzeko tar- tea hartzegatik!





4

elkarrizketa



Arrakastaren gakoak

Hodei Lujanbio eta Yoni Salaberriarekin arrakastaren inguruan hizketan.

Hiztegiaren arabera arrakasta harriena ona edo nahi edo desiradena lortzea da. Baina nola lortzen da arrakastatsua izatea? zein da sekretua? Azken hilabeteetan inguru-

ko komunikabideetako titularretan azaldu zaizkigu bi herritar, bakoitza bere zaletasun edo afizioan egiten ari denagatik, eta Xapon ere txoko bat egin nahi izan diegu Hodei Lujanbio

eta Yoni Salaberriari. Mendi Lasterketek eta Sad Trap musikak berez zerikusirik ez badute ere, bata zein bestea, bere alorrean arrakastaren bueltan dabilta eta.





Hodei Lujanbio mendi lasterketetan bolada ederra izaten ari da. Parte hartu duen azken lasterketetan marka bikainak lortu ditu. Lerro hauek idazterakoan Goizutrail Mendi Lasterketa bigarrenaz irabazi berria du eta Zegama Aizkorrin marka ederra egin du.

“Gaur eun Oiartzunen bizi den goizutar” gisa aurkeztu digu bere burua Hodeik. “Mendin lasterka ibiltzea ta bereziki konpetitza gustatzen zina, ta lagunarteko momentuk asko baloratu ta disfrutatzen ttuna”.

Yoni Salaberria, aldiz, artearen munduan murgilduta dabil. “Musikan mundun Rig3l izenakin ibiltzen naiz abeslari gisa.” Ez da ordea Goizuetan entzutera ohituta gauden musika estiloetan mugitzen, nahiz eta bere baseek baduten ohikotik “Sad trap edo Emo trap generoa lantzen dut Pop Punk edo Rock estilokin nahastuz”

“Azeriak” izeneko diskoa argitaratu du aurten eta Euskal Herriko nahiz kanpoko eszenatokiak bete ditu bere Sad Trap doinuekin. Besteak beste, Iruña Rock festibal sonatuan izan zen martxoan eta apirilean berriz, Madrilko El Sol aretoan eman zuen kontzertua.

Aurreko afizioak

Bai Yoni eta bai Hodei gustura dabilta egiten duten horretan. Baina ez dira betidanik horretan aritu. Hodeik aipatu digunez, mendi lasterketetan hasi aurretik bakarkako kirolik ez zuen egin izan. “Nere planak launartekok zian. Kirola beti gustatu izandu zit, umetan pilota, gero areto futbola, frontenis... biño beti launakin itteko kirolak.” Parrandazalea zela ere aitoritu digu, eta “oain ya gaeuz enaiz askoik ibiltzen, eunezko parranda ta otorduk nahio.”

Yonik haurtzarotik izan du artista sena. Bere hitzetan “Ttikititik gustatu izan tzian gauzako bat, duda gabe, marraztea izandu da, ideak burun bueltaka ibili, istoriok pentsatu ta paperan gañen irudi haik itsastea gustatzen tzian. Pinturan mundua re gustatzen tzit biño eia san, marrazketa gehio”

Hastapenak

Biak dute gogoan noiz hasi ziren orain beraien bizitzan hain garrantzitsua den honetan. Hodei 2014an hasi zen, herrian Goizutrail Mendi Lasterketa

lehenbizikoz antolatu zen urtean. “Kirolzalea izaki, beste laun batzun arrimon parte hartzera animatu nitzan, ta maten dunez pixkot behintzat gustatu zian!! Hurrengo urten berriz ittera animatu nitzan behintzat, ta Oiartzungo Intxixutrail ittera re bai. Ta hortik aurrera, gustoa hartzen hasi, pixkanaka gero ta gehio ibiltzen, konpetitzen...”

Kirola eta natura gustatzeak eraman zuen mendi lasterketetan hastera. Hala dio: “Biek batera in zitzekela izautzea klabea izandu zen noski nerezat!!”

Hastapenei buruz galdetutakoan, Yonik Mexikora egindako bidaiara batera eraman du burua. “Bertan bizitutako egoera kritiko bat dela medio, familia batek utzitako txabola batean bizitu behar izan zuen.” Egun euritsu batez sortu zen dena. Bere egoeraren berririk ez zuen Leitzako Gorka lagunak base mordo bat bidali zizkion eta “momentu hartan, beharrak ta sentitzen nittun gauza guzik bultzatuta, base hain gañetik letrak idazteko beharra sentittu nun. Hor ezautu nun musikan alderdi hori, ta hor hasi zen dena” aitortu digu.



Gustuko tokian aldaparik ez

Ez bata ez besteak ez zuen pentsatzen hainbeste gustatuko zitzaionik bere afizioa.

Hasiera batean Hodeiren helburu bakarra “mendi kirola ittea” zen, ta lasterketak bukatzea. Ongi moldatzea gerora torri da, biño nere ustez edozein gauzatan aitzeko, gustatzea klabea da!”

Yonik, gustukoa izateaz gain, lagungarri ikusten du bere afizioa. “Enun inoiz pentsatuko hainbeste gustatuko zianik ta gehienbat, hainbeste launduko zianik. Eunerokotasunan parte bihurtu zen ta hala izaten seitzen do oaindik.”

Afizioa ofizio?

Hodeiren esanetan zaila da mendi lasterketatik bizitzea. “Nik dikiala, Euskal Herrin denak lana itten dute, ta mundu mailan 2 eskukin kontatzeko modun izango dia hontatik bakarra bizi dianak.” Badaki gero eta diru gehiago mugitzen dela, baina gehiengtan lasterka ongi ibiltzeagatik baino gehiago irabazten da publizitatea egitetik “Trixtea da, biño azkenen dirua markak muitzen dute, ta hoieri publizitatea ta sare sozialak inportazkite.”

Musikatik bizitzeari buruz galdetuta, “kontzertutatik eia da dirua lortzen

dela biño bueno, oaingoz disfrutatzeke gauza bat bezela ikusten dut”, dio Yonik. “Azkenen ittea gehina gustatzen tziana hori da neretzat musika...hortaz, hontatik bizi litteken eztaikit biño niri bizia ematten diala behintzat argi dut.” ziurtatu du.

“Arrakastaren gakoa toki eta momentu egokian egotean dago”

Biak ados daude esaldiarekin, baina argi dute aurretik lana egitea ere ezinbestekoa dela. “hori azkeneko koxka bakarra da, aurretik lan asko in bar da arrakastan koxka iyo o ez aukeran eoteko. Arrakastan aukerakin zaudenen bai, lasterketa egokia, dauden aurkarik... suerte pixkot behar da. Biño aurretik in bartako lana nahi ta nahiezkoa da!” dio Hodeik.

Yoniren esanetan leku onean eta momentu egokian egoteak beti lagundu dezake, “biño hor eon aurretik, ezpazo behar den lana in... Esku hutsik eongo za ta momentu hortan suertek gutxitako balio do.”

Inguruko babesa

Inguruko babesa garrantzitsua dela diote biek. Hodeiren esanetan “Kasi nere goa ta konpromisoa hainbeste”. Honela jarraitu du: “Entrenatzeko

denboa eukitzea, seitzeko motibaziori eustea, lasterketatara akonpañatzea ta aukera denen launtzea... gauza asko daude ingurukon esku daudenak, ta alde hortatik oso eskertua no!! Beste egoera o inguru baten seuraski enitzan hontan hainbeste ibiliko.”

Yoni ados dago inguruko babesa garrantzitsua dela esatearekin, baina zerbait gehitu nahi izan dio: “babesik garrantzitsuna azkenen norberak bere bururi ematten dina da. Euki behar da bakarrik aurrera itteko su hori, nere ustez. Inguruko babesa gerogo tortzen den gauza dela iduitzen tzit. Norberak jan behar tto bere akatsak, momentu onak ta bidea bilatu.”

Kritikak

Arrakastaren bidean ohikoak izan ohi dira inbidia, ezin ikusiak eta kritikak. Hala ere, beraien inguruan ez dute halakorik sumatu. “kirol indibiduala da gurea, ta bakoitzak berea itten do. Norberak ikusten do nola ta zenbat entrenatu, ze karrera in, ze kostantzi eraman... Diru ta kontratoik tarteko ez don bittarte behintzat, ta beste iñorreri kalteik itten eztizun bittarte, kritikako aukera gutxi maten dula sain nuke.”

Yonik barre artean kontatu digu kritikatu baino, zirikatatu egin izan dutela kuadrillakoek: “rey del trap” deitu izan diote, baina “inolaz e modu txarren”. Normaltzat jo du hau, kontuan izanda ezezaguna den genero bat lantzen hasteak “txoke kultural” hori ekar dezakeelako. “Halare oain nik uste, estilo hoik eukitzen ai dian popularizazioa dela ta, pertsona asko ai diala “rolloa” ulertzen.”

Disziplina

Arrakastaren olatuan mantentzeko disziplinak garrantzi handia du. Aurrez aipatu bezala, lan asko egin behar da, baina askotan horrekin ez da nahikoa. Mendi lasterketa nahiz musikan jende asko dabil “gauza gehio re euki bar dia kontun: deskantsoa, alimentazioa... seuraski azkeneko hau izango da gehina kostatzen ziana!! Jajaja...



Askotan gustoko beste gauza batzuk e kendu o gutxittu bar izaten dia; bereziki launarteko plan, otordu, eonaldi... asteburutako karrera ta entrenamentukin konpajinatzea ezta arraxa, biño moldatzen naiz al duan neurin bietatik itteko!!”

Yoniren ustez “poliki poliki aurrera ittea, ematten duna bino zaioa da, batez e musika bezelako arlo saturatu baten. Perfil artistiko mordoa, estilo pila, konpetibitatea... Eunero lana ta nork bere bururi gor ittea dia bi gauza importantenak. Batzutan batek euki

ditzazken dudak hartu ta basurera bota, ta segi aurrera”

Momentu hunkigarriak

Egindako lanak fruituak ematen ditu eta momentu hunkigarriak sortu ere bai. Hodeik bi momentu ditu gogoan: “Seuraski ez dia nere emaitza ta lasterketa hobenak izan, biño lengo urten Goizutrail irabaztea ta 2020en Mandubira in nun erronka izango dia momentu hoiek. Launak, familia ta inguruko jendea bertan daudela! Nere mo-

mentu polittanak sortzeko ezinbestekok dia!! Estimaten zun jendea ingurrun donen sortzen dia emozio polittanak!!”

Ta beste lasterketa guzitan e, nere ondokok ikustea, animatzen dizuten momentua, helmugako besarkada, metara besotan o eskutik sartzea... ezta momentu hoiek superatzen ttun beste deus!!

Yoniri duela gutxi Madrیدهko El Sol aretoan emandako kontzertua etorri zaio gogora. “Artistazo batzuekin batera” joan zen. Hautatuak izan zirenetatik berak bakarrik abesten zuen euskaraz. “Iñork etzian hostiaik enteintzen, biño bertako pertsona guzik sentittu zuten hemen intako barne lan guzi hori ta ikaragarria izandu zen magia hori zuzenen ikustea.”

Ametsak

Hodeik argi du bere afizioaz orain bezala disfrutatzen segitzea dela bere ametsa. “Azkenen hori da entrenatzeko ta disziplina mantentzeko indarra maten diana, ta dena lotua dio. Disfrutatzen eztuan momentun, entrenatzeko ta konpetitzeko goa re bukatu ingo dela iduitzen zit”.

Argi du bere afizioagatik ez duela beste gustoko gauza asko egiteari utziko. “Nik uste horregatik lortzen duala baitare kostantzia mantentzea, ta pixkanaka gotti jon izana. Gustoko ttuan beste gauza batzuk kendu ezkerro, igual azkarxio lasterra ingo nuke? hori ezin da jakin, biño hain pozik ta hainbeste denboran behintzat ez!”

Yonik, berriz, musikak berari eman zion aterpe hori beste pertsonentzat zabaltea du amets. “Erakustea, etzula zertan munduko pertsona guapona, abeslari hobena edo pertsona dirudunana izan bar zerbette politta lortu ahal izatteko. Ni bezela, pertsona normal batek man dezakeela pauso bat aurrera ta burun ttun helmuga ttiki hoiek lortuz yon. Azkenen pauso ttiki askok, haundi batek bezinbeste balio dute ta.”

Mezu horrekin, beraz, Xapoko irakurleak animatu nahi ditugu gustoko duten horretan lan egin, disfrutatu eta ametsak egi bihurtzen jarraitzeko.



HARRO-HERRI, KORRIKA 2024

Martxok 19ko oroitzapenak oaindik burun al ttizo? Oroitzen al tza adibidez testigua zenek eraman zun? Ta ze talden edo kuadrillan izenen? Beti gotti, Beti hor, Beti prest... Ni eia san, nahiko nahastua ibili nitzan kuadrilla bakoitza zein zen asmatzen. Ta zu?

Hementxe zo ariketa bat ea Goizutako kuadrillak ongi identifikatzen ttizun edo ez yakitteko!

Aukeratu testigu eramaile bakoitzari dagokin kuadrillan izen egokia:



- **Beti gotti**
- **Beti prest**
- **Txakoliña**



- **Beti gotti**
- **Beti prest**
- **Arrastaka**



- Arrastaka
- Xakilero SA
- Otso emek

- Beti hor
- Txingones del Norte
- Arrastaka



- Beti hor
- Apaparrutxak
- Pollo eta kuadrilla



- Txingones del Norte
- Apaparrutxak
- Txakoliña



erreportajea



- **Beti hor**
- **Txingones del Norte**
- **Otso emek**



- **Apararrutzak**
- **Otso emek**
- **Arrastaka**



- **Beti prest**
- **Pollo eta kuadrilla**
- **Beti gotti**



- **Arrastaka**
- **Txakoliña**
- **Xakilerro SA**

- ERANTZUN ZUZENAK:**
1. Beti prest
 2. Beti gotti
 3. Otso emek
 4. Arrastaka
 5. Beti hor
 6. Txakoliña
 7. Txingones del Norte
 8. Apararrutzak
 9. Pollo eta kuadrilla
 10. Xakilerro SA



Korrikarekiko sentimendua

Eta Korrikako emozio-festan inguruan zer du esateko?

Testigua eraman duten hainbat herritar aukeratu ttu ea berari aurtengo Korrikak ze emozio sortu ditzen ezautzeko. Hona hemen erantzunak:

GALDERA 1: Ze izandu da zuretzat Korrika?

GALDERA 2: Ze sentipen edo emozio sortu dizo aurtengo Korrikak?



argazkia: Vitor Oliveira

GALDERA 1: Neretzat Korrika euskara da.

GALDERA 2: Poza eta indarra.



argazkia: Lurdes Eskudero

GALDERA 1: Oso egun politta.

GALDERA 2: Hunkigarria.



argazkia: Maria Apezetxea

GALDERA 1: Hain herri ttikik horrelako parte hartzea izatea, izuarritzko harrotasuna.

GALDERA 2: Poza.



argazkia: Larraitx Mendizuri

GALDERA 1: Euskararen herria garela, harrotasunez, aldarrikatzeko aukera.

GALDERA 2: Ilusioa



argazkia: Xabier Goizueta

GALDERA 1: Earra eta Euskal Herriak behar dun ekitalditako bat.

GALDERA 2: Korrika aurretik nerbiok eta gero poz haundi bat.



argazkia: Ana Etxeberria

GALDERA 1: Bizipen hunkigarri ta ikaragarria.

GALDERA 2: Poza, alaitasuna. Korrika aytetzen denen bakarrik sentittu litteken hori.



argazkia: Lucia Etxeberria

GALDERA 1: Zapaldutako hizkuntza baten haunditasuna ta indarra.

GALDERA 2: Ama-hizkuntzakin daukian lotura maitasun haundikin sentitzea.



argazkia: Eneko Apezberrea

GALDERA 1: Euskara bultzatzen launtzeko ekintza bat.

GALDERA 2: Harrotasuna.

2002. urtea

Esteban Arotzenak Ttipi-ttapan 2002an argitaratutako Goizueta-ko berri garrantzitsuenei emanen diegu gainbegirada aurtengo aldizkari-ko atal honetan.

Aurreko urteko abenduan ospatuta-ko Xalto Sariaren VI. Edizioaren berri ematen zuen Arotzenak 2002ko ilbel- tzako alean. Xumai Murua lapurtarra suertatu zen garaile Xabi Terreros eta Oskar Estangaren (besteak beste) au- rretik.

Negua aurrera joan ahala inauteriak ailegatu ziren. Mozorroen taldeak markak hautsi zituen kopuruari zego- kionez: 44 kide elkartu ziren, eta azpi- marragarriena, horietatik heren bat neskak ziren; Otsailean bertan Umore Onak Gerado Ollo hautatu zuen presi- dente Elkartearen ohiko batzarrean.

Dena den, 2002ko otsaileko eta az- ken urteetako berri nagusienetako bat Zibolatik Madalena bitarteko zeharbi- dearen eta Herriko Etxearen obren inaugurazioa izan zen. Garai haietako ia-ia milioi bat euro kostatzen ziren bi la- nak. 620,000€ zeharbidea eta 364,000€ Udaletxea. Herritar asko hurbildu zen ekitaldira korporazioare- kin eta Nafarroako Gobernuako Gu- rrea presidenteordea eta Palacios kon- tseilariarekin batera. Pili Untxalo zen alkatea orduan.

Bestalde, Euskal Herriko hainbat erakunderen ilegalizazioa salatu as- moz bi eguneko baraualdia egin zuen herriko gazte talde batek martxoan; eta apirilean, berriz, Xapo urtekaria- ren lehen alea argitaratu zen “Euskara Zerbitzuaren eta gazte talde baten el- karlanari esker”.

Maiatza zen Udaltzako Idoia Lega- rreta Udaltzako arkitektu izendatu zuenean; eta hilabete berean 7 neska-mutikok lehen Jaunartzea ospatu zuten.

Ekainean 1.300.000 euroko aurre- kontua onartu zuen Udalak; uztai-



Baraualdia.



Jaunartzea.

lean Eroskiko Cosumer aldizkariak zioenez, Estatu guziko kanpin one- nen artean zegoen Iskibi. Eta uda ho- rretan piñuak ihartzen hasi ziren, ur- te gutxiren barranean gure mendie- tako insigniak hilko zituen gaitzak jota.

Abuztuan protagonismo osoa Ama- birjin Festek eraman zuten. Ikaraga- rriak urte horretan ere. Eta urrian, ja- kina, ehiztarien berriak nagusitu zi- ren. Bi kuota ezberdin indarrean jar- tzea erabaki zuen Basauntz Elkarteak: herrian erroldatuentzat 42€ eta gaine-

rakoentzat 150€. Eztabaida beroak sortu zituen neurri horrek.

Urteko azken hilabeteak era ezber- dineko ekitaldi arrakastatsuz bete zi- ren 2002an. Bat aipatzekotan esan, Gazte Asanbladak “Mozorro Festa” an- tolatu zuela Elkartearen. “Hirurogeiga- rren hamarkadaz” jantzi behar zuten afaltiarak. Aitaren batean agortu zi- ren salmentan jarritako 100 txartelak.

Eta urtea bukatzeko beste berri poz- garri bat: Goizueta suspertu nahian 15 lagun inguruz osatutako Kultur taldea sortu zen herrian.

IGNAZIO BERGARA

Euskaraz 1787-1811 bitartean idatzitako beste 368 gutun

1. Euskaraz idatzitako "beste" 368 gutun?

Bai, halaxe da. Eta "beste" kakotx artean paratu dugu, lehendik ere badirelako euskarazko gutunen aurrekariak Goizuetan.

Geroeneko txandan, duela bi urte pasatuxe, 2021ean, argitaratu ziren Euskaltzain-

| | | | |
|------|---|------------|-------------|
| 1800 | Dagusi Jauna esua Auzengo Ma Cusulo Co eta Auzesqui | | |
| | ñeta Co Basoen Plazeniag | | |
| | Gregorio, Arozandia | 32 quattos | 0 90. (ca)g |
| | Juan Estevan dan volina | 32 | 1 66 1/2 |
| | Pastor de Lionet | 32 | 3 42 1/2 |
| | Baup, ostitas Cos | 32 | 0 69 1/2 |
| | Juan domiñ go de vbizi | 32 | 1 36 |
| | Domingo de Loyate Ezquerre | 34 | 3 66 |
| | Sollarena | 34 | 1 68 |
| | Manuel de Echeverria | 34 | 1 68 |
| | Marti Cal de ne Coag | 34 | |
| | Sel Bastian Liviaren Atapu | 36 | |
| | Suete de Pesavuxua lo de Arano | | |
| | Juan antonio de Liviaren | 34 quattos | |
| | Agustin de vbizi | 34 | |
| | Sel Bastian Archaya viejo | 34 | |
| | Lu Cas de Ira ola | 34 | |
| | Martin de Zaldeano | 34 | |
| | Franzic Culopexera Peraxelai | 34 | |
| | Gregorio de Cu de ro Zqueleag | 36 | |
| | Miguel fernand de Michelena | 36 | |

1731 Dagusi Jauna Emer Ladago gauza onig Lzandu
 Maquiñcho Leonet Eusi ditu guziq Examan duzu
 Cuvitartelo Lurag guziq Araso eta Lurag
 Cuvitarteloag vriditu Lur pinzipalag. Cantag
 Aman diozla, ola Co Prudag eta Auzadazag eta
 Ba guziq Betrag daude Lalaxaz eta Auz Anta
 Bolaxaraño Cavi de zaqueten guziag. Aspoag
 Alchaturag Lander Mainaren Diverleño Bana
 Trovichurig Landa, Auzetuan urag gorago eta
 Lura Laruguzieg Aguz, eta pisan Ezin Suma
 119 Aguzi Laxoladagoan Estan Ca Aldetig mugit
 dixudi Enfi ura vasaxera Ezagunenda, L
 Za pivaloa Jena Beru Lur guziqquin Auzer
 manean garailo Aldera Animaturig au Betra
 Azequiguzieg Ezunaz eta Lalaxaz vteditu Lo
 Bart Etorizen anaza onig Ezanendioz Ca g
 la dauden, leuzicolana Ziaz guillzag E
 Cadu, eta Aguesturat Eguin vaxlodu Baz
 guziq nola dauden Euztera Baurig Euzi
 guziq Emer Eguite Co chaxrag daude
 Juan de Nov. 19 del 800

diaren *Iker* sailean Jose Ramon Minondo goizuetarrak 1790 eta 1807 bitartean euskaraz idatzitako 318 gutun.

Gutun haiek Oiartzungo *Olaberria* burdinolatik Artikutzako *Goitzarin* burdinolako nagusia zen Juan Bautista Minondori zuzenduak izan ziren.

Gutun haietan Jose Ramon Minondok Olaberriko burdinolaren berri eta han gertatzen ziren gorabeherak azaltzen zizkion nagusiari: nolako piezak egiten zituzten, zein gastu eta zein diru-sarrera zituzten, zer-nolako arazoak izaten zituzten itzaiekin, baso-mutilekin, enkanteekin, burdinolako langileekin...

Honen denen berri eman zen *Xaporen* 20. zenbakian, 2021eko maiatzeko alean.

Oraingo honetan, euskaraz idatzitako garai bereko beste gutungile edo kontu-emaile goizuetar baten 368 gutun dakartzagu Euskaltzaindiaren azkeneko argitalpenean.

2. Denak euskara hutsean?

Gutun asko eta asko euskara hutsean daude, bai, baina beste asko euskaraz eta gaztelaniaz idatzita daude. Aintzat hartu behar da idazki askotan burdinolako kontuak ematen direla, hau da, lanean aritu diren langileek zer gastu edo lan egin duten, zein egunetan lan egin den, zenbat egun igaro dituzten lanean, zenbat diru gelditzen den... Zifra haiek denak gaztelaniaz ageri dira gutunotan.

Eta horrelako kontuekin batera datak ere bai: noiz idatzi diren gutunak, noiztik noiz arte aritu diren langileak lanean, noiztik noiz arteko gastuak diren... Hein handi batean kontabilitatea eramateko gutunak dira.

Gehien-gehienetan zifrak eta datak gaztelaniaz jasotzen ditu Ignazio Bergarak,

eta argibideren bat eman behar duenean euskaraz eranstean du testua.

Horregatik, gutun eta idazki guztiak ez daude osotara euskaraz. Batzuk bai, eta beste batzuk ez; baina denek badute euskaraz idatzitako zerbait, edo asko.

Jakina, kontuan izan behar da gutun guztiak ez direla luzera berekoak: batzuk oso laburrak dira (zenbait letror osatutakoak), eta beste batzuk, aldiz, zerrendak direnez, luzeagoak, zenbait orritakoak.

3. Zein gai ukitzen dira gutunetan?

Aipatu dugun moduan, kontabilitatea eramateko eta kontuak emateko gutunak dira gehien-gehienak. Arranbideko (Arano) eta Elamako (Artikutza) burdinolako kontuen berri ematen da gutunotan.

Adibidez, zeinek zenbat karga-ikatz ekarri duen eta nondik, noiztik noiz arte zeinek zenbat burdin egin duen, garraiolarien nondik eta zenbat karreto egin dituzten, zeinek zenbat egun sartu dituen lanean, zenbat janari edo edari ekarri den eta zenbat gastatu den...

Horretaz gainera, zenbait konturen argitasuna ere eman behar izaten zion kontu-emaileak olajaunari, eta xehe-tasun horiek denak hitzez azaltzen zizkion.

Adibidez, olajaunak berak norbaitekin kontuak kitatu behar zituenean gutungileak informazio guztia ematen zion: zenbat lan egin zuen edo zenbatsu ordaindu behar zitzaion, garraiolarien suertatzen zitzaizkion arazoak (eguraldi txarrarekin ez zutela itzaiek etorri nahi izaten lanera, edo gutxi ordaintzen zitzaizela eta kexu zirela)...

Edo 1800. urtean izandako uholde izugarriak nolako txikizioak egin zituen burdinolan eta urak nola eramaten zuten Arranbideko zubia.

Eta horrelako beste hainbat bitxikeria gehiago ere badira, baina, arestian esan bezala, gehien-gehienak kontabilitate-kontuak dira.

4. Nork idatzi zituen?

Gutun haiek denak Ignazio (de) Bergara delako batek sinatzen ditu beti. Goizuetako elizako artxiboen arabera, Fermin Ignazio Bergara Loiarte herrian jaio zen 1742ko ekainaren 15ean eta hantxe bertan hil 1819ko martxoaren 26an.

Lau senidetatik bera bigarrena zen; 24 urterekin herrian ezkondu zen Katalina Frantziska Eraso Nogerarekin, eta bost seme-alaba izan zituzten.

Goizuetako 1786ko erroldan, etxez etxe zein bizi zen adierazten den erroldan, honako agertzen da: "Loydi (gaurko *Loidinea* etxea). Ignacio de Bergara *oficial de herrería de 45 años y cathalina de Eraso su mujer de 50 años...*"

Gutun guztietan ez bada ere, gehienetan, lekua eta datarekin batera, Ignazioren izena edo izen-abizenak agertzen dira.

5. Nori zuzenduak dira?

Ignazio Bergara gutungileak Juan Bautista Minondo nagusiari errendatzen zizkion burdinolako kontuak. Goizuetako minondotar honek eta bere familiakoek zituzten beren gain inguruko burdinolen gehientsuenak.

Kontuan izan Juan Bautista, besteak beste, honako burdinola hauetako olajauna zela: Olaberria (Oiartzun), Arranbide (Arano), Goitzarin (Artikutza), Elama (Artikutza)...

Juan Bautista Minondo, Goizuetan ere etxea bazuen arren, Goitzarin (Artikutzan) bizi zen hango burdinolaren ondoko etxean, eta hara zuzentzen dizkio gutunak Ignazio Bergarak.

Gutun gehienak horrela hasten dira: "Nagusi Jauna", eta ondoren, aparte-ko lerroan edo segidan, hasten da Ignazio Bergara xehe-tasunak ematen. Bukaeran bere sinadurarekin (izen-abizenekin edo bere izenarekin baka-rrik) ixten ditu gutunak.

Orriaren alde batean, edo orriaren zati batean, agertzen da zeinbaitetan nori zuzendua dagoen espresuki, beti



gaztelaniaz: “A don Juan Bautista Minondo, Goizariñ”.

6. Gutunen tratamendua: berorika edo zuka.

Gutunen hasiera, olajaunari zuzentzen zaionean, beti berdina da: “Nagusi Jauna”; eta nagusiari zuzentzen zaionean beti hirugarren pertsona berorika mintzatzen zaio: “beurrek ekusi beharko ditu”, “beurrek gaztigatu beza”, “etorriko litzekeala beurrengana”, “beurri daritzan bezalakoa”...

Lehen esan badugu gutun guztiak Juan Bautista Minondori zuzenduak direla, baina egia esan, ez da guztiz horrela. Juan Bautista 1810eko abuztuan bat-batean hil zenean, bere seme Frantzisko egin zen burdinolen jabe, eta Ignazio Bergara seme honi zuzentzen zaionean, ez zaio zuzentzen lehengo nagusiari bezala gutunaren hasieran *Nagusi Jauna* paratuta, eta berorika, baizik eta honela hasten da “*Patxiku*”, eta ez zaio berorika mintzatzen, zuketan baizik: “Hor dezu [...] Konponduko dezu deritzazun bezala”.

Deigarria suertatzen da tratamenduaren aldaketa hau.

7. Noiz idatzitakoak dira?

Goizuetan aurkitutako dokumentazioa XVIII. mendearen bukaerakoa eta XIX.aren hasierakoa da. Gutun eta dokumentu asko (izugarri pila) daude, baina euskaraz idatzitakoa, eta bereziki Ignazio Bergarak idatzitakoa, 1787an hasi eta 1811 bitartekoa da.

Euskaraz idatzita agertzen den lehenbiziko gutuna 1787-01-19koa da, eta azkenekoa 1811-09-30ekoa. Beraz, 24 urtetan zehar Ignazio Bergarak olajaunari bi burdinoletatik (Arranbidetik eta Elamatik) errendatutako kontuak dira.

Ia gutun guztietan agertzen da lekua (nondik idatzitakoa den) eta data (noiz idatzia den), eta data zehatza agertzen ez den gutunetan edukian agertzen diren datetan oinarritu da dataren arabera sailkatzeko.

8. Nondik idatzitakoak dira?

Lehen aipatu dugu Iganziok Arranbidetik eta Elamatik idazten dizkiola gutunak olajaunari. Eta halaxe da. Lehenbiziko gutunak Arranbidetik idatzitakoak dira: 1787-01-19tik hasi eta 1804-01-31 arte, eta gero Elamatik bidaltzen dizkio: 1804-07-06tik hasi eta 1811-09-30 arte.

Zergatik aldaketa hori? Hasierako data horietatik 1804ra arte Juan Bautista Minondo zen Arranbidetik burdinolaren nagusia (errentan hartzen zuena), eta hari idazten zizkion handik. Baina 1804an Arranbide beste norbaitek hartu zuen, eta orduan Ignazio Elamara joan zen Juan Bautistarentzat lan egitera; eta 1804ko uztailetik aurrera Elamatik idazten dizkio.

Egia esan, badira bi gutun Goizuetatik idatzitakoak, bata 1803-12-08koa da, eta bestea 1805-06-24koa.

9. Gutunak non azaldu diren

Gutun hauek denak (eta gaztelaniaz idatzitako askoz ere dokumentazio gehiago) 2019an agertu ziren Goizuetako Paskualuzenea (“Pasköltzené”) aspaldiko etxean. Pisuak egiteko etxe handi hura zaharberritu behar zutela eta hustuketa-lanetan hasi ziren.

Tresna guztiak ateratzen hasi zirenean, bigarren solairuko alkobako kultura zahar batean, arropa, jantzi eta maindireen azpian aurkitu zituzten koadernoak, liburuak eta izugarritzko paper-zamote pila. Noizkoak ziren ikusten hasi, eta ohartu ziren duela 200 urte baino gehiagoko paperak eta agiriak zirela. Eta, gainera, haietako batzuk euskaraz idatziak. Sorpresa izugarria izan zen.

10. Gutunen garrantzia

Gutun hauen garrantzia azpimarratzekotan, gutxienez hiru eremu aipa daitezke: izaera, gaia eta garaia.

Izaerari edo nolakotasunari dagokionez, esan behar da ahozko hizkun-

tzatik bertago daudela testu idatzi eta landuetatik baino, eta ikuspuntu hau oso kontuan hartzekoa da, hizkuntzaren aldetik desberditasunak badirelako batoren eta bestearen artean. Gainera ez dira erlijioari buruzko testuak, baizik eta testu arruntak, eguneroko — nolabait esan — bizimodutik hurbilago daudenak.

Gaiari erreparatuz gero, burdinoletake kontabilitatea eramateko erabiltzen diren oharra eta kontuak direla esan behar da. Bereziki *zeinek*, *zer*, *non*, *zenbat*... galderei erantzuten dituen kontuak dira; janari-edariko gutunak zenbat ziren, eta horrelako kontuak, beti ere euskarazko azalpenekin. Honekin batera, noski, burdinoletake teknolektoa erabiltzen da, hau da, burdinoletake hiztegi propioa, berezia.

Eta azkeneko, garaiari atxikiz, orain dela 200 urte pasatxo gure euskara nolakoa zen kontuan hartuta, oraingora nola iritsi garen alderatzeko balio dezakete gutun hauek denak.

11. Zer da argitaratu dena

Duela bi urte pasatuxe argitaratu ziren Jose Ramon Minondoren gutunak jasotzen zituzten bi liburuki: batean gutunak biltzen ziren, eta bestean hizkuntzari buruzko azterketa egiten zen.

Oraingoan ere bi liburuki atera dira, aurrekoan bezalaxe. Batean Ignazio Bergararen bizitza, gutunen transkripzioan erabili diren arauak eta gutunak berak heldu dira gaurko grafian idatzirik; honekin batera USB bat jatorrizko dokumentuen eskannerrekin eta hauen transkripzio literalarekin.

Beste liburukian, hizkuntzaren azterketa egiten da: izen eta aditz morfologia aztertzen da, gero joskera, ondoren hitz hurrenkera, hizkuntzaren ukipenaz ere mintzatzen da beste kapitulu batean, onomastika kontuak ere bai beste batean, Ignazio Bergarak erabiltako hiztegia heldu da segidan, eta azkenik, Ignazio Bergararen eta Jose Ramon Minondoren hiztegien arteko konparazio bat erakusten da.

GUTUNAK

1800.11.19. Arranbide

Nagusi jauna:

Hemen ez dago gauza onik. Izandu da Juakiñtxo Leonet,¹ ekusi ditu guziek. Eraman du zubia,² bi arku bitarteko³ zurak, guziek arraso, eta hirugarren arku bitartekoak utzi ditu zur prinzipalak; karela⁴ guziek eraman diozka.⁵


Olako errudak⁶ eta ardatzak eta estolda guziek beteak daude zakarraz eta harez, antaparako soleraraño,⁷ kabi dezaketen guziak; haspoak atererik, altxatuak zauden mairaren⁸ nibeleraño, baña ez da probetxurik izandu.⁹ Hartu zituan urak gorago eta busti dira larru guziek hagitz.¹⁰ Eta presan ezin sumatu degu ongi zer-nola dagoan, estanka¹¹ aldetik mugitua dela dirudi. Enfi[n],¹² ura bajatzera ezagunen da.¹³ Ziargillza,¹⁴ presakoa, dena bere zur guziekin atererik, aldamanean¹⁵ garaiko aldera¹⁶ arrimatu-

rik,¹⁷ hau bertan utzi du;¹⁸ azeki¹⁹ guziek egurraz eta zakarez bete ditu.

Lorenzo bart etorri zen honara; horrek esanen diozka guziek nola dauden. Lenbiziko lana ziargillzak egiñ beharko du;²⁰ eta agertu bat egiñ beharko du bazter hoiek guziek²¹ nola dauden ekustera; beurrek ekusi beharko ditu guziek. Hemen egiteko txarrak daude.²²

Arranbide, noviembre 19 de 1800.

Ignazio.



- 1 1800.11.08ko gutunean, olajaunak egindako oharretan, *Juakin Leonet* ageri da, eta ziurrenik lagun hau beratu da.
- 2 Urak, uholdeak eraman du zubia.
- 3 Zubiaren arkuak izanen dira hauek.
- 4 *Karela*, gaur egun, egurrez egindako sarearen moduko itxitura da, Goizuetan, arbekin edo zotzekin egin ohi dena. A. M. Mitxelena (2020: 61), dena dela, *karela* zubietako baranda dela dio, eskuen irismenean gelditzen dena eta lur arrasekoa orobat. Ikus hiztegian dioguna.
- 5 Hau beste era honetara ere puntua daiteke: «...eta hirugarren arku bitartekoak utzi ditu; zur prinzipalak, karela guziek eraman diozka».
- 6 'Erruedak', 'gurpilak'. Ikus JRM (II, 264-265).
- 7 Antapara ola urez hornitzeko aska luze baten modukoa zen, zurez egin. *Solera*, berriz, 'hondoa' da, 'zola'. Ikus JRM (II, 216) eta A. M. Mitxelena (2020: 19-25) marrazkiak.
- 8 *Maira*, orea egiteko erabiltzen den aska modukoa' (EH). *Gaztelaniako artesa* bera.
- 9 Badirudi uholdeak izanen zirela ikusirik, olagizonek haspoak mairaren goratasuneraino altxatu zituztela esan nahi duela, baina alferrik, berdin busti baitziren.
- 10 Hauspoen larruak zipatu, pelatu, trenpatu zirela ulertu beharra dago.
- 11 *Estanka* uharka edo presatik ura ateratzeko atea da, ireki edo ixten dena, aukeran. *Erdarazko compuerta*.
- 12 Originalen *Enfi* dago.
- 13 'Ura jaisten denean ezagutuko da, ikusiko da'.
- 14 *Ziargillza* presako ura ixteko erabiltzen zen itxitura; *giltza* erdarazko 'sangradera' da. Ikus A. M. Mitxelena (2020: 56).
- 15 'Aldean', 'alde batean'. Goizuetan orain *aldamen* ibiltzen da, *aldamenen* kasu honetan. Ez dakigu testuko *aldamanean* hori huts grafiko puntuala den edo bokal asimilazioaren ondorioa.
- 16 Orain arruntean *goiko* esaten da alderdi honetan, ez *garaiko*, baina salbuespenen bat bada: hain zuzen *garaikalden* 'garaiko aldean', 'goiko aldean' nahiko arrunta da.

¹⁷ Azken zati hau honela ere puntua daiteke: «Ziargillza, presakoa, dena bere zur guziekin atererik aldamanean, garaiko aldera arrimaturik [...]».

¹⁸ Alegia, 'urak zehargiltza eta zur guziak goiko aldean utzi ditu'.

¹⁹ 'Azekia', 'hodia', 'kanal modukoa'.

²⁰ Irudi du IBk «lehenbiziko lana zehargiltzak egitea / konponetzea izan beharko du» esan nahi zuela hasmentan, eta gero itzulita aldatu duela.

²¹ 'Bazter hauek guziak'.

²² Irudi du «eginkizun latzak daude» esan nahi duela.

GUTUNAK

1800 urtekoa

1800. Arranbide

1800

Nagusi jauna:

Horra aurtengo Makutsolako eta Arteskiñe-tako basoen plazeriak:¹

| | |
|---|-------------------------|
| Gregorio Arotzandia..... | 32 quartos ² |
| Juan Esteban Danboliña ³ | 32 |
| Pastor de Leonet..... | 32 |
| Bauptista Ostitaskos ⁴ | 32 |
| Juan Domíngo de Ubitzi ⁵ | 32 |
| Domingo de Loiarde Ezkerra ⁶ | 34 |
| Sollarena ⁷ | 34 |
| Manuel de Etxeberria ⁸ | 34 |
| Martikaldenekoak ⁹ | 34 |
| Sebastian Iribarren Ataju ¹⁰ | 36 |
| Suerte de Presaburua lo de Arano | |
| Juan Antonio de Iribarren..... | 34 cuartos |
| Agustin de Ubitzi..... | 34 |
| Sebastian Artxaia viejo..... | 34 |
| Lukas de Iraola..... | 34 |
| Martin de Galdeano..... | 34 |
| Franzisku Loperena Perrazelai ¹¹ | 34 |
| Gregorio Eskudero igeleak..... | 36 |
| Migel Fermin de Mitxelena ¹² | 36 |

| | |
|---|---------------------|
| 1800 | |
| Nagusi Jauna eta Aurtengo Ma Cusulo Co eta Artesquiñeta Co Basoen Plazeriak | |
| Gregorio Arotzandia | 32 quartos — 090.00 |
| Juan Esteban Danboliña | 32 — 166½ |
| Pastor de Leonet | 32 — 342½ |
| Bauptista Ostitaskos | 32 — 69½ |
| Juan Domíngo de Ubitzi | 32 — 136 |
| Domingo de Loiarde Ezkerra | 34 — 366 |
| Sollarena | 34 — 168 |
| Manuel de Etxeberria | 34 — 194½ |
| Marti Cal de ne Coag | 34 — 112 |
| Sebastian Iribarren Ataju | 36 — 095½ |
| <hr/> | |
| Suerte de Presaburua lo de Arano | |
| Juan Antonio de Iribarren | 34 quartos — 165 |
| Agustin de Ubitzi | 34 — 180 |
| Sebastian Artxaia viejo | 34 — 139½ |
| Lukas de Iraola | 34 — 212½ |
| Martin de Galdeano | 34 — 161½ |
| Franzisku Loperena Perrazelai | 34 — 134½ |
| Gregorio Eskudero igeleak | 36 — 137 |
| Migel Fermin de Mitxelena | 36 — 056½ |
| <hr/> | |
| 1740 | |

¹ Makutsola eta Arteskiñeta Aranoko aurkintzak dira (NTEM 47: 30, 42). Egun (*ibid.*, 42) Makutxolo dago herri horretan, aipatu lanean Makutsolo arautua. Liburu horretan berean biltzen diren lekukotasun gehienak —bakanak dira, halarik ere— eta JBMk darabilen Macusola ikusirik, ordea, garbi dago Makutsola behar duela, alegia, bukaeran *ola* dugula. Makutso Oartzungo etxea da, eta bertakoen izengoitia ere bazatekeen. Ikus 1801.11.17ko gutuna.

² Eskuinaldean ola jaunaren zenbakiak ageri dira.

³ Etxe izengoitia edo izengoitia izanen da. 1797.04.12ko gutunean Juan Esteban de Zabala Danboliña ageri da.

⁴ Hau ere izengoitia dateke.

⁵ Ikus 1797.04.12ko eskutitzean honetaz dioguna.

⁶ Izengoitia dugu hau.

⁷ Izengoitia dela ematen du.

⁸ Aranoko etxea.

⁹ Martikaldenea (Martikaldene egun) Aranoko etxea da.

¹⁰ Izengoitia.

¹¹ Aranoko baserria dugu Perrazelai, eta aurkintza ere bada. Hortaz, kasu honetan etxe izengoitia dugu.

¹² Aranoko etxea.

Umore ona elkarteari

jarritako bertsoak

Esteban Arotzenak (Sarran 1956) ehunka bertso idatzi ditu 1980ko hamarkadaz geroztik. Hainbat lehiaketetan ere parte hartu du, eta, esate baterako, Iruñeko Udalak antolatzen duen “Nafar idazleen literatur lehiaketa”ren bost ediziotan saritua izan da (1996, 1997, 1998, 2018 eta 2019).

Aurtengo Xapon argitaratzen dugun bertso sorta hau 1990ekoa da, eta Goizuetako Euskara Batzordeak antolatutako lehiaketan 1. saria lortu zuten helduen mailan.


Gaia: Umore Ona Elkarte.
Neurria: Hamarreko handia
(Aita izena doinuan).



Esteban
Arotzena
Mitxelena

- 1) Gure herrian bada toki bat jator eta zoragarri nahiz ta egiten igaro gendun hainbeste istilu larri baina halare denori esker egun batez martxan jarri Umore Onaz ari naizela ez al duzue igerri zortzi bertsoan eman nahi nuke gure txoko honen berri (berriz)
- 2) Le(he)nengo urratsa nola eman zen merezi du esatea zabal zabalik zegon gureztat Udaletxeko atea kontzejal denak borondatetsu baita ere alkatea bestela ez zen inoiz egingo guk nahi gendun Elkartea bidezkoa da gizon haiei esker onak ematea (berriz)
- 3) Beti izan da gure herrian zerbait egiteko nahia baina laguntza eza genduen orduko gure etsaia halere zuzen eraman nahi dut aukeratutako gaia aspaldidanik bazegon hemen talde jator ta alaia Umore Ona Peña izan zen Elkartea honen sustraia (berriz)
- 4) Nik ez dut uste inor dagonik hau egindako penetan ez pentsa gero halakorikan badela herri denetan Zaharren Eguna, Kultur ekintzak inauteri ta festetan Umore Onak parte hartzen du aktibitate hauetan berari esker alde ederra bada orain Goizuetan (berriz)
- 5) Esan bezala kultur ekintzak eratzen dira ugari eta zainketa hain berezia hemengo folkloeari Elkartearen eskua hortan ez al da argi nabari ongi begira arlo horretan hemen egindakoari Umore Ona talde badira hirurogei bat dantzari (berriz)
- 6) Kritikak ere jaso ditugu ta ez prezio merkean askoren ustez atzeratuak gaude gaurko gizartean egia esan ni lotsatzen naiz honen berri ematean emakumerik onartu ez denez oraindik gure artean dirudienez loturik gaude matxismoaren katean (berriz)
- 7) Jan eta edan lagun artean baita kantu eta dantzan ordu mordoan hemen igaroz euskaldun jatorren gisan oso gustora egoten gara teilatu honen gerizan nahiz ta batzutan hemendik irten hauntz eta honuntz balantzan dudarik gabe holako zerbait gure herrian behar zan (berriz)
- 8) Inola ere ezin bukatu nere bertsozko bidea aipatu gabe aspaldi hontan falta den adiskidea nola a(ha)ztu ba Burgosen dagon Juan Miel Apezetxea laister gurekin izango dela eduki behar fedea bera baitugu Elkartea honen ohorezko bazkidea (berriz)





Euskara eta kulturartekotasuna Xalto ikastetxean

Euskaraz bizitzen jarraitzeko, kulturartekotasuna aintzat hartuta

Duela 2 urteko XAPO aldizkarian eskolako kultur aniztasunari buruzko erreportajea kale-ratu zen. Bertan argi gelditu zen jatorri anitzeko ikasle ugari dagoela Goizuetako eskolan, azkeneko urtetan familia dezente etorri baita herrira bizitze-

ra. Egoera hori oso ohikoa ari da gertatzen Euskal Herriko toki guztietan, eta horrek panorama berri bat ekarri du: hizkuntza, kultura eta jatorri anitzeko herritarrak espazio berean elkarbizitzen aritzea. Ondorioz batzuen eta besteen sentimenduak errespetatu

eta aintzat hartzeko beharra sortu da, eta elkarbizitzak sintonia onean aurrera eginen badu egoera hori egoki kudeatu behar da.

Premia horretatik abiatuta iritsi da “Euskara eta kulturartekotasuna Xalto ikastetxean” egitasmoa. Eta izenak bi ideia horiek bildu nahi ditu: alde batetik euskara, alegia, euskaraz bizitzen jarraitzeko asmoa; eta bestetik kulturartekotasuna, alegia, kultura ezberdineko hainbat kide dituen errealitatea aintzat hartzea. Nolabait esateko, ‘bertako-ez bertako’ dikotomia hautsi eta komunitate anitza erai-nahi da lanketa honen bidez, betiere, euskaratik.

Bi ideia edo errealitate horiek ongi uztartzeko ahalegina da egitasmoa eta bereziki eskola komunitatearen barruko komunikazioan jarriko du arreta; batez ere familiekiko eta gurasoekiko komunikazioan: eskolak deitutako guraso batzarrak, mailaz mailako bilera-
rak, gurasoen arteko whatsapp taldeak, gurasoentzako oharrak eta komunikazioak...

Lehenago ere eskolak hartu izan ditu zenbait erabaki arlo horretan, eta eman izan ditu zenbait urrats. Orain, egitasmo honekin, azkeneko urteotan aldatuz joan den errealitate bati erantzun eta beste urrats bat eman nahi dute egitasmoan parte hartzen duten eragile guztiek: Xalto eskolak, guraso elkar-teak, UEMak eta Goizuetako Udalak.

Egitasmoaren aurrekariak

Proiektua ez da hutsetik abiatu: UEMak duen kezka batetik eta UEMak berak egin duen gogoeta batetik abiatu da, eta Zaldibiako eskolan egindako esperientzia pilotua izan da aurrekari, han egin baitute lehenabi-ziko proba HUHEZIren aholkularitza-rekin (Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea). Ondoren zabaldu du UEMak beste hainbat herritara: 2022-2023 ikasturtean, Aizarnazabalen, Ibarra, Leitza eta Ondarroan landu zuten, eskolekin. Ikasturte ho-

netan, berriz, Alegia, Arbizu, Areatza, Asteasu, Azpeitia, Bera, Itsasondo, Legorreta, Lizartza, Markina-Xemein, Mutriku, Oñati eta Oriora zabaldu dute egitasmoa, baita Ereñotzuko Txirritak eskolara ere.

UEMAk duen kezka, zehazki, honakoa da: herri euskaldunetako eskolatan ikasleen eta familien profila aldatzen ari da, baita hizkuntzari dagokionez ere, eta asko dira, gaur egun, euskararik ez dakiten edo erabiltzen ez duten familiatan bizi diren haurrak. Errealitate hori gero eta hedatuagoa da eta eragina dauka hizkuntzaren ezagutzan eta erabileran. Bai haurren artekoan, bai eskola-komunitatearen barruko komunikazioan.

Kulturartekotasuna ezaugarri gero eta nabarmenagoa da, beraz, eta euskaraz bizitzen jarraitzeko asmoa ere sendoa da. Hori da lanketa honen oinarria eta abiapuntua.

Egitasmoaren helburuak

Egitasmoaren helburuak, labur azalduta, honakoak dira:

- Euskaraz bizitzea: alegia, orain arte bezala, eskola komunitatearen bizitza euskaraz normal egiten jarraitzea.
- Familia guztiekin komunikazio eta giro abegikorra bermatzea. Baita euskara ez dakitenekin ere.
- Euskalduntasunetik kulturartekotasuna eraikitzea.

Egitasmoaren oinarrian dauden ideiak eta zenbait gogoeta

Esan bezala, urrats zehatz eta praktikoko batzuk ematen ari dira proiektuaren barruan, baina urrats horiek egiteko badaude arrazoi batzuk eta bulkada bat. Horiek dira ekimenaren marko teorikoa osatzen dutenak, "oinarri filosofikoa" nolabait esateagatik.

Honatx, marko teoriko hori osatzen duten ideietako batzuk. Interesgarriak dira gure herrira duela gutxi etorri diren bizilagun berrientzat, baina inte-



resgarriak dira, halaber, lehendik ere hemen bizi zen edonorentzat.

- **Euskara hizkuntza minorizatua da eta normalizazio prozesuan dago:** Goizuetan euskara da hizkuntza nagusia, eta ofiziala da, gaztelaniarekin batera, baina hizkuntza minorizatua da eta ez dago normalizatuta. Hizkuntza bizia eta osasuntsua da euskara Goizuetan, baina gabeziak eta hutsuneak ere ugariak dira, eta hizkuntza osoki normalizatua izateko bide handi bat falta zaio oraindik. Bultzada eta babes handia behar du, oraindik ere.
- **Euskararen etorkizuna:** euskararen etorkizuna ez dago bermatuta. Euskarak, oro har, egoera ahul samarrean jarraitzen du, eta etorkizunean hizkuntza osasuntsua izanen ote den ez dauka ziurtatuta.
- **Gure herria arnasegunea da:** arnaseguneak euskararen bizitasun eta erabilerara handiko guneak dira, eta ezinbestekoak dira euskararentzat. Goizueta horietako bat da eta horrek, nolabait esateko, ardura bat dakarkio herriari.
- **Gure herrian bizilagun berriak:** Goizuetatik bertatik beste toki askotara jendea mugitu izan den bezala, gure herrira ere bizilagun berriak etorri dira eta etortzen ari dira. Ongi etorri! Bizilagun berri horiek, normalean, ez dakite euskaraz, eta horrek eraman gaitu bide berriak bilatzera herrian euskaraz bizitzen jarraitzeko eta, aldi berean, denon arteko komunikazioa bermatzeko.

Eta komunikazioari begira konponbidea ez da denok gaztelaniaraz egitea, denok (edo gehienok) badakigulako. Gure herria arnasegunea da eta izaten jarraitu nahi du, eta horretarako euskara erabiltzen jarraitu behar du. Ongi ulertu behar da, horrenbestez, zuzenean gaztelaniara ez jotzea ez dela "errespetu edo heziketa falta".

- **Zaldibiako esperientziatik etorritako gogoeta bat edo beste:** egitasmoak aurrera egin dezan komeni da konplizitateak ehuntzea, elkar ulertzea... Etorri berrientzat euskara ikastea ahalegin handia da, eta, era berean, hainbat unetan euskaldunarentzat ere gaztelaniaraz aritzea esfortzu handia da.

Kultura ezberdinetako kideekiko jarrera abegikorrari eutsiz euskaraz bizitzen jarraitzeko apustuari eutsi nahi bazaio uneren batean konpromiso batzuk hartu beharko dira. Esate baterako, euskara ez dakitenei (etorri berriari nahiz aspaldi hemen dagoenari) euskararen erabileraren aurrean jarrera goxoa eta atsegina eskatzea; edo, euskaldunaren kasuan, guraso taldera mezua bidaltzen duenean, Telegram aplikazioaren bitartez egiten duenean, euskara batuan edo zuzen samarrean egiten saiatzea, aplikazioak gaztelaniarako (edo beste hizkuntzaren baterako) itzulpena ongi egin dezan. Azken ideia hori hobeki ulertuko da aldizkari honetan bertan Whatsapp taldeak kudeatzeko azalduko dugun proposamena irakurrita.





Proiektuan parte hartzen ari diren eragileak: Xalto eskola, Guraso Elkarte, Goizuetako Udala, Euskara Zerbitzua eta UEMA.

• **Egoera horretan, zer?** Egitasmo honetan haurrak eta helduak daude inplikaturik, modu eta neurri ezberdinean bada ere, eta biei eskaini edo eskatzen ahal zaie zer edo zer. Esate baterako:

- Etorri berriak euskara ikastera animatu daitezke. Euskara Mankomunitatearen laguntzari esker, euskara doan ikas dezakete Goizuetan errolatutako herritar guztiak.
- Familia etorkin askorentzat seme-alabek familiaren hizkuntza(k) ikastea oso garrantzitsua da, eta badute horrekiko kezka. Garrantzitsua da eskolak eta herriak haien hizkuntzekiko begirunea modu argian adieraztea.
- Euskaldunak herriko haur guzti-guztiei euskaraz egin beharko lieke, baita atzerriko jatorria duten familietako haurrei ere. Bertakoak dira, euskaldunak dira, eta euskara da, besteak beste, herriko bizitzan txertatzeko modu eraginkorrenetako bat.
- Eskolako hizkuntza ongi ikastea oso garrantzitsua da eskolako materialak ikasteko.
- Bestelako aukerak ere baliatu behar dira: eskolaz kanpoko jarduerak, telebista, liburuak, komikiak...
- Garrantzitsua da familiek euskararekin jarrera abegikorra adieraztea umeen aurrean.
- **Garrantzitsua da umeei etxeko hizkuntza ongi ikastea eta erabiltzea.**
 - Umeen garapen kognitiborako garrantzitsua da eta, horretaz gain, bigarren hizkuntzak ikasteko oinarria da.
 - Haurraren identitatearen zati bat da.

- Familiarentzat eta komunitate osoarentzat baliabide bat da.

• **Kontuan hartzeko zenbait alderdi:** prozesu honetan, esandakoaz gain, badira kontuan hartu beharreko bestelako zenbait alderdi:

- Prozesu bat da eta, espero litekeen moduan, prozesu horrek gorabeherak izan ditzake.
- Ez dago “konponbide perfekturik”. Urratsak eginez eta irtenbideak probatuz joanen gara, ona eta eraginkorra denari eutsiz eta hobetu litekeena hobetuz..
- Egonezinak ere agertu litezke, eta horiek kudeatzen asmatu behar da. Horretarako, besteak beste, garrantzitsua izanen da jarrera adeitsuak sustatzea.

Egitasmoaren alderdi praktikoa

Esan dugun moduan, egitasmo honek alderdi praktikoa dauka, eta eskola komunitatean hizkuntzak kudeatzeko irtenbide praktikoa bilatuko dira: gurasoekin egiten diren batzar orokorretarako; gurasoekin egiten diren mailaz mailako bileretarako; familiei bidaltzen zaizkien komunikazioetarako; gurasoen whatsapp taldeetarako; guraso elkartearen bileretarako...

Landuko diren irtenbide praktikoa horietako bi aipatuko ditugu, adibide gisa:

• **Bileretan hizkuntzen erabilera kudeatzeko sistema, Telegram aplikazioaren bitartez:**

Elebidunak eta erdaldunak elkartzen diren bileretan modu ezberdinak erabili izan dira hizkuntzaren erabilera

kudeatzeko: dena bi hizkuntzetan egin; euskaraz egin eta ondoren laburpen bat gaztelaniaz; euskaraz egin eta zenbait xuxurlari jarri erdaldunen ondoan haiei itzulpena egiteko...

Egitasmo honen barruan beste modu bat hautatu da, denontzat aurrerapausoa delakoan. Hauxe da: norberaren telefonoan Telegram aplikazioa deskargatuta (doan eskuratzen da eta Whatsapp-ek bezalatsu funtzionatzen du), batzar edo bilerarako kanal bat sortzen da, eta esandakoa ulertzeko itzulpena behar duenak aurikularrak jantzi eta kanal horretan sartu, ez du besterik egin behar. Bileran esaten ari dena gaztelaniaz entzuten du aurikularretatik, bertan dagoen itzultzaile baten ahotik. Erraza, praktikoa eta eraginkorra da sistema. Nahikoa izanen da pertsona bakar bat itzultzaile lana egiteko, eta euskaraz ez dakienak egin beharko duen bakarra aurikularrak jantzi eta kanalean sartzea da.

Beraz, euskaraz egin ahalko da bilerara, normaltasun osoz, bertan esandakoa ulertu gabe inor geldituko den kezkarik izan gabe, Telegram bidezko itzulpenak bilera jarraitzeko aukera emanen baitie denei.

• **Whatsapp taldeak Telegram talde bihurtu.**

Telegram aplikazioa Whatsapparen antzekoa da, berdin funtzionatzen du, baina abantaila bat dauka: testuen itzulpenetarako aukera erraz bat dauka. Jakina, edozein whatsapp talderako balio duen proposamena da, ez dago eskola komunitatera mugatua.

Aipatutako bi ekintza edo proposamen horiek, esan bezala, artikuluan zehar azaldutako gogoeta eta “filosofia” horrekin lotuta daude, eta horren guztiaren ondorio praktikoa dira. Urrats jakin batzuk dira, gehiago ere emanen dira, eta aurrera joan ahala ikusiko da hobetzeko alderdirik badagoen, zer eta nola hobetu daitekeen. Espero dezagun ahalegin partekatua honen ondorioz, pixkanaka, egitasmoak ezarritako helburuetara hurbiltzea eta denontzat irabazi bat lortzea.

Xalto eskolako ikasleek aurten landutako zenbait gai

Eskertzekoa da Andres Narbarte "Xalto" ikastetxeko ikasleek aldizkarirako egiten duten lana, eta aurten ere erreportaia bikaina eskaini digute. Mailaka aritu dira, batetik txikienek ostiraletan izaten duten plana kontatu digute, eta bestetik, kozkorragoek bi lan eskani dizkigute: liburuaren egunari buruz presatutakoa, eta munduko artisten ingurukoa. Gozatu haien lanez!

SALTO GELA

HAUR HEZKUNTZAKO 4 ETA 5 URTEKOAK GARA. OSTIRALERO SALTO GELARA JOATEN GARA ETA OSO ONGI PASATZEN DUGU. NAHI AL DUZUE JAKIN ZER EGITEN DUGUN? ORAINTXE KONTATUKO DIZUEGU:



LEHENENGO ZAPATILAK
KENTZEN DITUGU.

GERO KOJINEZ OSATUTAKO
PARETA BOTATZEN DUGU.





BEGIRA ZE SALTOAK
EGITEN DITUGUN!!

HAU GURE TXIRRISTA DA!!



ETXE HANDIAK EGITEN
DITUGU!!

BUKATZEKO, IPUINA ENTZUTEN
DUGU ETA MARRAZKI BAT EGIN
ONDOREN, DENA TXUKUN
JASOTZEN DUGU!!



LIBURUAREN EGUNA

1.-2.LH

APIRILAREN 23

Apirilean ospatzen den Liburuaren Egunaren harira 3 ekintza burutu zituzten LH 1.-2.mailako ikasleek:

1

LIBURU BERRIAK GELAN!

Goizean gelara sartu eta liburuen kutxa berri bat topatu zuten gelan liburuaz betea!



A zer gozarena!! Alfonsoan edo nahi zuten tokietan jarri ziren ikasleak irakurketaz gozatzeraz!

2

ORRI MARKATZAILEAK

Irakurtzen ari garen liburua ez bada bukatu, ez da arazorik!! Orri Markatzaileak esango digu non utzi genuen eta nondik jarraitu behar dugun. Horretarako honako pausak jarraitu genituen:



- 1.- Margotu
- 2.- Meztu
- 3.- Plastifikatu



Orain bakoitzak bere du liburu tartean!

3



LIBURU KUTTUNA



Lehen hezkuntzako 2.mailakoek astero-astero txandaka, etxean duten liburu kuttun bat ekartzen ari dira gelakideei altuan irakurtzeko. Ondoren idazketa lantzeko aitzakiarekin, denon artean entzundakoaren laburpena idatziz osatzen dute lan trukun eta politak osatuz.





LH 3-4. MAILAKO ARTISTAK

Aurtenango ikasturtean artista ezberdinen lanetan oinarritu gara gure plastikako artelanak egiteko eta, bide batez, proiektutxo hau hizkuntzako arloarekin lotuz, landutako artisten biografiak egin ditugu, beren bizitzak hobeto ezagutzeko.

Jarraian horietako bi biografia irakurtzeko aukera izango duzue, bai eta gure lan batzuen argazkiak ikusteko ere:



Vincent van Gogh (margolaria)

Vincent Van Gogh 1853ko martxoaren 30ean jaio zen, Zunderten (Herbehereak). Bere gurasoek Theodorus eta Anna Cornelia zuten izena eta bere anai-arrebak Theo, Cornelius Vincent, Elisabetha Huberta, Anna Cornelia eta Wilhelmina Jacoba ziren.



Bere haurtzaroa oso tristea izan zen. HBS Koning Wilem II institutuan ikasi zuen eta txikitatik margolaria izan nahi zuen. Hasieran bere osabarekin egin zuen lan La Hayan zuen arte enpresa batean. Baina gero Londresera joan zen lanean jarraituz. Londresen Eugeniaz maitemindu zen, baina berak ez zuen berekin egon nahi.

Orduan Parisera joan zen eta margotzen hasi zen. Bere margolanak oso ospetsuak dira, adibidez: La noche estrellada, Los girasoles, Dormitorio en Arlés eta El tejedor. Sariak irabazi zituen.

Van Gogh 1890ko ekainaren 27an hil zen, Frantzia eta bere hilotza Auver-eko hilerrian aurkitu dezakegu. Bere lan asko Kroelermuler Museoan daude, Herbeheretan.








ARTISTA



YAYOI KUSAMA

Yayoi Kusama 1929ko martxoaren 22an jaio zen Nagonan, Japonen. Bere gurasoak Shigeru Kusama eta Kamon Okamura ziren eta landareak saltzen zituzten. Hiru anai-arreba izan zituen. Txikitan gurasoek gaizki tratatzen zuten eta horregatik hasi zen margotzen.

Bere lehen ikasketak Kyoton izan ziren, Kyotoko Arte Unibertsitatean. Ondoren New Yorkera joan zen bizitzera eta han margotzaile, eskultora eta argazkilaria bezala lan egin zuen. Donald Judd eta Eva Hesse bere lagunak izan ziren. Bere bikotea Joseph Cornell zen, baina ez ziren ezkondu, erlazio arraroa izan zuten. Bere bikotea hil zenean Japonera itzuli zen eta bere arazo psikologikoengatik ospitale psikiatriko batera joan zen.

Bere artelanetan puntu asko jartzen zituen. Oso famatua egin zen Pumpkin, Flowers, Butterfly edo Mushrooms artelanak egin zituelako. Sari asko irabazi zituen.

Gaur egun ospitalean jarraitzen du eta nahasmendu obsesibo-kompulsiboa du. Bere lanak inthim museoan edo The Broad museoan daude.



Artista gehiago ezagutu nahi badituzu, ikusi QR kode hauetan ezkatututa dauden biografiak ere:



Pablo Picasso



Yayoi Kusama



Vincent Van Gogh



Eduardo Chillida



Louise Bourgeois



Vasili Kandinski





M^o KARMEN AZPIROZ GOIZ-ARGI TABERNA



1- Zein da M^o Karmen Azpiroz?

Ama bat asko sufritu duna, amona oso gustora bizi dena eta Goiz-Arri tabernan 32 urten lan in dun emakumea naiz.

2- Noiz hasi zihan tabernako lanetan?

Familia kozkortu ta gero hartu nuen erabakia taberna bat irikitzeko.

3- Gustoko lanbidea izan al da?

Bai, tabernako lana asko gustatu izan zait, nahiz eta batzutan asko "aguantatu" beharra izan!

4- Nola eraman dituzu taberna eta familia?

Neke askokin, baiño beti familiaren laguntza izan dut, bai seme-alabena eta festa egunetan ere ahizparen laguntza beti izan dut.

5- Guk gaztetan "sala de juegos" bezela ezagutu dugu, nolatan hori?

Orain taberna dena garai baten bajera haundi bat zen. Eskola hemen ondoan egin zenean pentsatu nuen "sala de juegos" bat jartzea. Goxoki ugari jarri nitun, futbolin bat, tragaperras bat eta musika aparato bat, dirua bota eta norberak aukeratzen zituen abestiak. Eta azkenean denentzako taberna izan da, otorduak eta guzi ematen nitun eta!

6- Mostradoren beste aldekoak nola portatu izan dira?

Denatik, batzuk besarkadak emanez eta beste batzuk "mekauen dioska"! Kar, kar, kar...

7- Edari izarra zein izaten zen gazteen artean?

Helduxioek goizeko 7tan pattarra eskatzen zuten, eta gaztegiagoek parrandan txurumuski edo kristal. Azken hau kopa bat zen edari desberdin batzuk nahastuta: koñaka, ginebra, anisa....

8- Asko ligatzen al zen taberna giroan edo borrokalaria ugaritu?

Nik esango nuke gehio ligatu izan dela gure tabernan behintzat!! kar, kar... nahiz eta borroka batzuk ikusi izan!

9- Zu erretiratua zaude, falta sumatzen duzu?

Bai noski, ni erretiratuta alabak segitu zuen tabernakin eta nik beti esku bat bota izan diot, nahiz sukaldean, nahiz arraskan, nahiz barran. Alabak utzi zuen arte!

UXUE MUTUBERRIA MUTU TABERNA



1- Zein da Uxue Mutuberría?

Geldik eon ezin dun 29 urteko neska kaskaorra.

2- Noiz hasi zinan tabernako lanetan?

Oso gazte, 14 urtekin nere lehenbiziko fiestak gauzez lanen.

3- Gustoko lana al duzu?

Bai, noski. Herriko edozein pertsonakin hitz ein, elkar zirikatu do elkarrekin par batzuk botzeko lan aproposa da.

4- Nola eraman dituzu taberna eta ikasketak?

Ez da erraxa izan biño "gustoko lekun maldik ez" san ohi izaten da, ta nere kasua horixe da. Biek gustokok izanta, aurrera!

5- Berez zure lanbidea zein da?

Nere lanbidez galtzen diatenen... Arkitekta nitzala saten dut, biño askok, tabernaria nitzala pentsatzen dute; ezto ukatzeik! Bi lanbidek dia nere bizin parte. Etorkizunen kusi barko du nola kontesten duan galdera hau!

6- Mostradoren beste aldekoak nola portatzen dira?

Denetik do! biño orokorren ongi portatzen dia. Ezta inongo kejik alde hortatik! Nere hasiera garaikokin konpatu beharko banu... oaingo gazteria errespetu haundiokoa dela argi dut!

7- Edari izarra zein da gazteen artean? Eta helduxioena? Aldea nabaritzen al da?

Gazten arten, kalimotxo eta patxaran txupitoak. Helduxion arten, garagardoa eta txupitoik ez. Aldea nabaria da! Kar, kar, kar

8- Asko ligatzen al da taberna giroan edo borrokalaria ugaritu?

Gezurrik ezin esan! Taberna giron asko ligatzen da. Biño borrokalarin bat irabazi re bai! Kar, kar.

9- Mutu gure diskoteka da, baina orain otorduak ere ematen dituzue, ze nahiago duzu, eguneko jendea edo gaueko "martxa"?

Gaueko martxa nahio! Gainera, Goizutan eunez gaueko martxa bezelakoa sortzeko... aitzaki haundiikan ezta behar! Hortaz, ezin kejatut!